

## **Hendaiak gibela eman digu**

*El Mundo del País Vasco*, 1991-07-12.

Hendaia eta Hondarribia aurrez-aurre daude. Bidasoa eta honen badia tarteko; hirigunetako kaskoek urrundarik elkarri begira, baina bada gertuago dauden alderdirik: bi espigoi-muturrek itsasorantz abiatzen diren puntu honetan batetik Hendaiako hondartzaren amaia dago eta bestetik Hondarribiako Butron pasalekua. Bertatik ematen zaie hasiera estropadei Hondarribian eratzen direnean.

Orain hogeita hiru urte geu Hondarribiratu ginenetik gertatu dira geure ikuspegi honetan aldaketak: Lehendabizi, Hendaiako hondartzaren muturra ikusten genuen, eta alemanak kostaldeko defentsarako mundugerran eraiki zuten porlanezko bunker erraldoia, bere kargaz hondarrean baldarki hondoratzen; atzean Kasinoa bitarteko zuhaitz multzo bat txaletez inguratua. Lehen aldaketa, Hondarribiako espigoiaren paraleloan eraiki zuten Hendaiako espigoi berria; bien artetik egiten dute geroztik joan etorria bi portuetako arranuntziak. Bigarren aldaketa nagusia, bunkerra zeharo estali eta gero aurten eraikitzen ari diren etxe multzo bat: poztu nintzen, bi herriak hurbiltzeko modua baitzen; gero, zernolari begira egon naiz eraikintza guztia zaintzen, eta pentsatzen ere, hangoak hemendik, eta hemengoak handiz, bertsolariak jai eder bat prestatzeko parada izango zutela; bozgorailu batzu lagungarri, noski, kilometroa izango baitu zabal hemen, bokalean, Bidasoak. Azkenean pintura zuriak egin eta gero... ez zitzaidan auzategi berriaren aurpegia agertu, bere bizkarra baizik, eta herenegun bulldozerrak zirt eta zart batean aparkaleku bat egin ez digu ba! Gaur kotxez beteta dago.

Tamalez, Hendaiak gibela eman dio Hondarribiari.